

## **15/2007 Legea, uztailaren 3koa, Lehia Defendatzekoa**

### **V.TITULUA – Zehapen-araubidea**

#### **65. artikulua. Isuna ordaindu beharrik ez izatea.**

1.- Aurreko artikuluetan ezarritakoa hala izanik ere, Lehiaren Batzorde Nazionalak enpresa edo pertsona fisiko batek jarri dioten isunik ez ordaintzea erabaki ahal izango du, ondorengo kasuetan:

a) Enpresa edo pertsona fisiko hori bada lehena frogazko elementu jakin batzuk aurkezten, eta horiek Lehiaren Batzorde Nazionalari kartel bati buruzko ikuskapen-lana 40. artikuluan zehaztutako moduan aurrera eramateko aukera eskaintzen badiote ustez, baina baldin eta elementu horien berri emateko unean ez baldin badago behar beste datu ikuskapen-lanari ekiteko agintzeko. Edo

b) Enpresa edo pertsona fisiko hori bada lehena frogazko elementu jakin batzuk aurkezten, eta horiek Lehiaren Batzorde Nazionalari kartel bati buruzko 1. artikuluko arau-hauste bat egiaztatzeko aukera eskaintzen badiote ustez, baina baldin eta elementu horien berri emateko unean Lehiaren Batzorde Nazionalak ez baldin badu behar beste datu arau-haustea izan dela egiaztatzeko, eta enpresa edo pertsona fisikoren bat ordaindu beharretik salbuetsita utzi ez bada a) hizkian ezarritakoaren arabera.

2.- Lehiaren Batzorde Nazionalak aurreko paragrafoan aurreikusitako salbuespena onartzeko, eskaera aurkeztu duen enpresak edo, hala bada, pertsona fisikoak ondorengo baldintzak bete beharko ditu:

a) Lehiaren Batzorde Nazionalari erabateko lankidetzara jarraia eta arretatsua eskaini beharko dio, erregelamendu bidez zehaztuko den moduan, ikerketaren administrazio-prozedura guztiak dirauen artean.

b) Ustezko arau-haustean parte hartzeari utzi beharko dio, artikuluko honetan aipatzen diren frogazko elementuak ematen dituen unetik, salbu eta Lehiaren Batzorde Nazionalari egokia iruditzen bazaio parte hartzen jarraitzea komeni dela, ikuskapen-lana eraginkorragoa izan dadin.

c) Salbuesteko eskaerarekin zerikusia duen frogazko elementurik ez du deseginda izango, eta beste hirugarren batzuei, alde batera utzita Europar Batzordea edo lehiaren arloko beste agintaritzak batzuk, ez die jakinarazita izango, zuzenean edo zeharka, eskaera hau aurkezteko asmoa, edo eskaeraren edukia.

d) Ez du neurririk hartuta izango beste enpresa batzuk arau-haustean parte hartzera behartzeko.

3.- Enpresa bat isuna ordaintzetik salbuesten bada, horrek enpresaren legezko ordezkariari ere eragingo die, edo zuzendaritza-organoetako kide diren pertsonari ere bai, hain zuzen ere akordioan edo erabakian parte hartu dutenak, baldin eta Lehiaren Batzorde Nazionalari lankidetzara eskaintzen badiote.

#### **66. artikulua. Isunaren zenbatekoa murriztea.**

1.- Lehiaren Batzorde Nazionalak kasuan kasuko isunaren zenbatekoa murrizteko aukera izango du, aurreko artikuluko 1. paragrafoan aipatzen diren baldintzak bete gabe ere, ondorengo egiten duten enpresa edo pertsona fisikoen kasuan:

a) Ustezko arau-haustean inguruko frogazko elementu jakin batzuk aurkezten dituztenei, baldin eta horiei esker ordura arte Lehiaren Batzorde Nazionalak zituenei balio handia emanen bazaie.

b) Aurreko artikuluko 2. paragrafoko a), b) eta c) hizkietan zehaztutako baldintzak betetzen dituztenei.

2.- Isunaren zenbatekoa zenbateraino murriztu, ondorengo erregelaren arabera kalkulatu da:

a) Aurreko paragrafoan ezarritakoa betetzen duen lehenengo enpresa edo pertsona fisikoak ehuneko 30 eta 50 arteko murrizketa lortzeko aukera izango du.

b) Bigarren enpresa edo pertsona fisikoak ehuneko 20 eta 30 arteko murrizketa lortzeko aukera izango du.

c) Ondorengo enpresa edo pertsona fisikoek isunaren zenbatekoan ehuneko 20ra arteko murrizketa lortzeko aukera izango dute.

3.- Enpresa edo pertsona fisiko batek emandako frogazko elementuei esker beste gertakari osagarri batzuk zehaztea baldin badago, eta horiek isunaren zenbatekoan zuzenean eragiten badute, egoera hori kontuan izango du Lehiaren Batzorde Nazionalak enpresa edo pertsona fisiko horri dagokion isunaren zenbatekoa zehazterakoan.

4.- Enpresa bati dagokion isunaren zenbatekoa murriztea erabakitzen bada, ehuneko berean murriztuko da zilegi ez zen akordio edo erabakian esku hartu duten enpresaren ordezkariari edo zuzendaritza-organoetako kideei zegokiena ere, baina baldin eta Lehiaren Batzorde Nazionalari lankidetzak eskaini badiote.